



Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 1^a

GORPUEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIO INTERESGARRIA, OSASUN MINISTERIOAK COVID-19 DELA-ETA ERREGELAMENDUA ALDATU ONDOREN

2020ko martxoaren 20ko SND/2020 Aginduaren 3. artikuluan, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren aurrean gorpuak lurperatzeko lizentzia eta amaierako norakoa emateko salbuespenezko neurriak ezartzen diren atalean, honako puntu hauek aldatu dira:

1. Agintaritza eskudunak egin ahal izango du **Erregistro Zibilean inskribatzea eta**, ondoren, **ehorzketa-lizentzia ematea, heriotzatik hogeita lau ordu igaro gabe.**
2. Era berean, **gorpua ehortzi, erraustu edo zientziari dohaintzan eman ahal izango zaio, heriotzatik hogeita lau ordu bete arte itxaron gabe**, betiere egitate hori hildakoaren edo horren oinordekoen borondatearen aurkakoa ez bada.

Modu horretan **gezurtatzen dira, senideen borondatearen aurka, gorpuak erraustearen inguruko zurrumurruak.**